

Ihesi

Iñaki Mendiguren
Argazkiak: Gotzon Aranburu



Euskal Herria ezagutuz:
Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa)

AHTk aurrera (ala aurrean?) eramango duen herria

Ezkiotarra da Iñaki Mendiguren sortzez; ezkiio-itsasoarra, esan beharko, 1965az geroztik. Urte hartan bildu ziren udalerrri bakarrean bi herriak, eta biei bilduko zaie, XXI. mendean sartuta dagoeneko, AHT, geltoki eta guzti. Trenbide polemikoak herriari ekarriko dionaz bere iritzia –argia– eman du lehenbizi Mendigurenek, eta udalerriko hainbat txoko eta istorio ezagutzeko gonbita egin digu ondoren.





Lerroot gainean, Ezkioko eliza, herriaren erdigunean. Aurreko orrialdean AHTk zeharkatuko duen parajeetako bat ageri da.

ARGIAREN atal honek “Ihesi” du izena, “kultura eta aisia”ren barruan. Denok ibiltzen gara geure aisialdian eguneroko errealitateetik ihesi, txoko ezezagun baina eder, exotiko eta idilikoen bila, kulturaz jantzi eta ondo pasatzeko asmoz. Horrelakoetan berezko paisaia hondatu gabeak estimatzen ditugu, ongi kontserbaturiko arte- eta arkitektura-ondareak. Baina hori bizitzaren alde bat besterik ez da. Gehiegi ote da txangozaleari, paisaia liluragarriez harago, lurralde horretan bizi den jendearen argiztal eta gazi-gozoekin topo egin dezala eskatzea? Horra hor gonbita gure artera zatozen horrentzat: goza ezazu gurean, baditugu-eta atsegintoki politak, baina ikasi zer-bait gure herriaren bizimoduaz ere, bizi nahi eta ezinean dabilen, bere nortasunari eutsi nahi eta nola lortu ez dakien herri txikia gara eta.

1931n Ezkio(ga)n Ama Birjina agertu “omen” zen, Espainiako II. Errepublikaren sortu berriaren aurkako mezu sutsuekin, nekez hitz eginen baitu katolikoaren Ama Birjinak ezkerren alde, edo eskuineko

diktaduren aurka. Gertakari haiek ospetsu bihurtu zuten gure herria inguru zabalean. Orain berriro entzutetsu egin da Ezkio-Itsaso. Zergatik eta Abiadura Handiko Trena (AHT) agertuko zaigulako... “opari” eta guzti: badirudi gurean izango duela hiriburuetatik kanpoko geltoki bakarra.

AHTren kontuan bi kexa handi ditut nik. Lehena: ez naiz atzera begira bizi den nostalgiko kontserbazionista sutsu horietakoa, baina ez dut ulertzen lehenatasuna ematea tren eredu honi eredu “sozialago” bati eman beharrean. Bigarrena: behin proiektua gauzatzea erabakita, ez dut ulertzen gauzak hain gaizki egitea. Gure herrian denak ez dira bat etorriko lehenengo puntuarekin –ez baitut ahazten EAEko lau alderdi garrantzitsu alde dituela proiektuak–, baina gehienak bai ados bigarren kexarekin.

AHT: erantzunik gabeko galderak
AHTren kasuan “omen” eta “badirudi”-ka gabiltza, informazio egiaztatu oso gutxiarekin. Zer kal-

kulu egin da Ezkio-Itsason geltokia jartzeko? Ez dugu ezagutzen bere tamaina, erabilera eta abar. Zer azpiegitura eta logistika eskatuko du inguruan? Hemen izango al da Nafarroarekin lotura? Zerbait jende erakarriko du gure artera? Nola integratu jende hori gurean? Lehen ere bai baitugu arazo hau! Galdera gehiegi airean, erantzunik gabe, eginahalak egin arren, oso datu zehatz gutxi baitu Udalak Ezkio-Itsason benetan egin nahi denaz. Edo inork ez daki, edo dakienak ez du esan nahi. Eta hain gardentasun eta argibide gutxi dagoenean, errazago ernetzen dira beldurra, kezka eta egonezina itxaropena eta baikortasuna baino. Tren hau aurre-rapena izango dela? Gaur gaurkoz hori esateko bezainbeste arrazoi dago pentsatzeko AHTk aurrean eramango gaituela geure txikitasunean, sor dezakeen dinamikak zeharo gaindi gaitzakeela. Horregatik eskatzen dugu pedagogia gehiago, nagusikeria gutxiago, kaltetuekiko eta herri osoarekiko begirune eta gupida handiagoa.

Badakigu horrelako azpiegitura-rik ez dela herri txiki baten neurria egiten; gutxienez egia balitz Euskal Herriaren zati handi batentzat onuragarria izango dela, agian errazago onartuko genuke Ezkio-Itsason “pagaburuak” izatea. Nahiz eta lehendik ere “aurrerapenari” zerga handia ordaindutako herria izan: hemen dugu RENFERen Irun-Madril burdinbide zaharra, ondo komunikatzen gaituena Irun arteko herriekin, oso gaizki Gasteiz edo Iruñearekin. Baditugu bi errepide, zaharra eta berria, alderik alde zeharkatzen gaituztenak Beasain-Durango korridorean: berria edo sailhesbidea ondo beharrezkoa zen, baina gaur egun, sosak aurreratzeko aitzakiaz, ez dira ulergarriak paisaian egin diren zauriak eta triskan-tzak. Badugu ere Iberdrolaren azpi-

tura horiek guztiak, etxebizitza berri gehienekin batera, Zumarra-ga eta Ormaiztegi arteko Santa Lutzia-Anduaga-Alegia bailararen hondoan daude metatuta. Eta kota batetik gora txoko ederrak daude hemen zure zain. Hots, 1965ean maitasunez edo halabeharrez uztarturiko herri honek aurpegi ederragorik ere eskaintzen diola egun-pasa etorri nahi duenari.

Mandubian galdu zaitetz

Biztanle gutxi gara (580 lagun 2008an) lurralde zabalean (21,3 km²): beraz, kilometro koadroko 27 bakarrik, Gipuzkoan 367 daudela. Hori berez ez da eragozpena, baina bai oso sakabanaturik egotea auzo askotan: Ezkio goian, Santa Lutzia-Anduaga behean; Itsaso goian, Alegia behean; eta Atxurtzaga-Kizkitza

herrian eskolarik ez izatea, ume-umetatik batzuek Goierri aldera eta beste batzuek Urola Garaira jotzea, oraintsu arte etxebizitza eskuragarri-rik bertakoentzat ez eraikitzea, kanpotik etorritakoak herrian nekez integratzea... horra, gure arazo potolo batzuk.

Baserriaren baserria

Nolanahi ere badugu erakargailu polit bat: Igartubeiti museoa, XVI. mendeko dolare-baserri zaharra, euskal baserriaren iragana, sagardo-arekin izan zuen lotura eta abar eza-gutzeko nahitaezko erreferentzia. Museoa sortu berritan ikusi baze-nuen, geroztik egindako Interpretazio Zentroak beste osteratxo bat eskatzen dizu. Zer pentsa ematen du gero baserria “museo” bihurtuta ikusteak! Metafora kezkarri



Ezkerreko argazkian, Igartubeiti baserriaren aurrea. XVI. mendeko dolare-baserri zaharra da Igartubeiti, gaur egun museo bihurtua, euskal baserriaren Interpretazio Zentro eta gutzi. Eskuinean, baserri barruko irudi bat.

estazio elektrikoa, lurraldearen eta hirigintzaren garapen orekatua izugarri baldintzatu eta mugatzen diguna. Hori gutxi ez eta erantsi REDESAK Gueñesetik honaino ekarri nahi duen 400 kilovoltoko linea elektrikoa. Gehitu horri plangintza gutxiarekin egindako indus-trialde zahar eta kutsatzaileak ...

A zer panorama edertasun bila ihesi gurera etorri nahi duzun horrentzat! Ez zaitudala seduzitu eta erakarri? Barka! Baina azpiegi-

gainalde horiez bestaldeen Mandubia dago bere historia luzeko benta ospetsuarekin. Ez duzula ezagutzen? Egidazu kasu, zeure burua edo lagunen bat mimatu nahi duzunean, zoaz bertara, egin otordu goxo bat eta “galdu” ordu batzuk inguruetan paseoan.

Ez dut bukatu: Matxinbentako 7-8 baserri ere gure udalerrikoak dira, eta besteak Azpeitia eta Beasaingoak. Bilgune nagusi bakar bat gabe hain barreiatuta egotea,

samarra ere bada. Esan beharko dizut bertan ekarri gintuela amak mundura: oso familia behartsua ginen... hala ere, Igartubeitiko “Azken Baroia” nauzu! Zehatzago esanda, “el último varón”, atzetik arreba bakarrik jaio baitzen... eta txahalak, untxiak, katakumeak, txitak... Igartubeiti Fermin Leizaolari esker dago zutik –ondo merezita jaso du I. Ondare Saria–, eta orain, Foru Aldundiari eta gipuzkoar guz-tion zergei esker, denon etxea da.



Mandubiako benta, historia luzeko eraikin ospetsua.

Oraindik badira, ordea, fosildu gabe bizirik iraun nahi duten base-riak. Horietako bat ezagutu eta bertan nekazaritza ekologikoaren alde egindako apustuaren berri izan nahi baduzu, Ariztizabal duzu aukera bat. Esango dizugu nola iritsi bertara.

Herrian badira hiru basiliza: Santa Marina, San Lorentzo eta bereziki erakargarria, bere kokapenagatik, Kizkitzakoa. Bakoitzak du bere historia. Zer esanik ez bi parroquia-elizek: San Bartolomeri eskainia Itsasokoa, eta San Migel goiaingeruari Ezkiokoa. Balio dezenteko elizak dira, eta zerbait egin beharko genuke nahi duenak errazago bisitatzeko aukera izan dezan. Jendez hustu ahala, badirudi zinemagileentzako erakargarri bihurtu direla: Itsasoko elizakoak baitira Helena Tabernaren *Berri Ona/La Buena Nueva* filmeko hain-

bat eszena, eta Ezkiokoak, berriz, Gutierrez Aragonen *Visionarios* filmeko batzuk; azken honek, hain zuzen, 1931n Anduagako zelaietan gertaturiko ikuskariei buruzkoak kontatzen ditu historia eta fikzioaren artean. Herri-guneetara iristen zarenean, bai Itsason eta bai Ezkion, hor dituzu Herri Ostatuak, mokadu goxo eta trago ederrak egiteko moduan. Itsason berriz, ostatutik hurbil, Pott zeramika-lantegia, eta bertan "Itsasoko jainkosak" deitzen ditudan Jone eta Maite. Ongi dagokie titulua, zeren eta, Egile Gorenak gizakia lur-hautsez moldatu bazuen, bi emakume hauek ere mundu berriak sortzen baitituzte esku artean buztinez.

Artista berriekin batera, baditugu historia luzeko monumentu harrizkoak ere: bi urkabe edo pikota –bat Alegian, baina Gabiriako sailetan–, eta hiru gurutze,

herri-sarrera edo bide-gurutzeetan egon ohi zirenak.

Baliteke norbaitek 1931ko gertaizun jakalekoa ezagutzeko interesa izatea. Ba, hortxe du hori ere, udaletxe atzeko maldan, AHTren igarobidetik oso hurbil. Bertan ikusi du oraindik ere badituela jarraitzaileak Ezkioko Ama Birjinak. Dena den, ez dut oso atsegin txoko hori hartzen ari den itxura; ez zait iruditzen gune publiko batentzat egokia denik; beste kontu bat da kultu-leku pribatu batean bakoitzak zer egiten duen. Jakin-mina baduzu –eta benetan jakingarria izan zen gertaturiko!–, errazago gomendatuko dizut *Las Visiones de Ezkioga. La Segunda República y el Reino de Cristo* (Bartzelona, 1977) irakurtzea: William Christian antropologo estatubatuarren liburu hau oso azterlan serioa, ongi dokumentatua eta maila handikoa da, baina aldi berean irakurterraza; bikain aztertzen du fenomeno konplexu eta zabal hura historiaren, soziologiaren, antropologia erlijiosoaren, politikaren eta abarren aldetik; argazkiak ere ez ditu alferrik galtzekoak.

Aipaturikoak ikusteko, ongi seinaleztatuta, eta batzuk Mendi Federazioak homologatuta, beren informazio-panel eta guzti, hiru ibilaldi dituzu aukeran, antolatuta berriak: Ezkio-Itsasoko itzulia Mandubitik, bata. SL-Gi 31: Kizkitza, Itsasoko Argia, bestea. Eta SL-Gi 32: Ezkioko dolare-baserriak, hirugarrena.

Animo, gure artera etortzen bazara, eskuzabalik hartuko zaitugu, daukaguna xume eta apal eskainiko dizugu, eta elkar aberastuko dugu. Ikusi arte! n



baga-biga musika bulegoaren eskutik
Mikel Urdangarin





baga-biga musika idelak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

DISKO BERRIA